

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

<b>IRAKASLEA:</b> Joseba Sarrionandia Uribelarrea
<b>DATA:</b> 2023ko irailaren 2tik 23ra
<b>AZALPENA:</b> Lexikoaren inguruan hausnatzeko proposamena. Helburua da ohartzea, alde batetik arauen, normaren eta sistemaren garrantziaz hitzei dagokonean, eta bestetik aldaketa lexiko etengabeaz eta hitz-sormenaren balioaz.

<b>AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)</b>
<p style="text-align: center;"><b>1. Saioa</b></p> <p>Kirikiñok antolatutako palindromo lehiaketa 1923an. Markos Gimenoaren palindromoak. Hitz orokorrak eta lokalak, hitz zaharrak eta berriak.</p> <p style="text-align: center;"><b>2. Saioa</b></p> <p>Hitz asmakizuna: William Shakespeare, Sabino Arana eta abar. Ludolexikografia, eta beste hizperimentuak. Saussure: erlazio sintagmatikoak eta paradigmaticoak hitz-sormenean. Hitz maiteak eta hitz ez hain maiteak. Hitz arruntak eta hitz bitxiak</p> <p style="text-align: center;"><b>3. Saioa</b></p> <p>Hitz zombiak: <i>Refranes y Sentencias de 1596</i> liburutik euskal hiztegiara sartu direnak. Markos Gimenoaren palindromoak eta kalanburrak: "Skizopoziks". Eugen Coseriu: <i>ez da hizkera arruntarekiko desbiazio bat. Norma da desbiazioa; heterodoxia, sistemaren erreibindikazioa da.</i></p> <p style="text-align: center;"><b>+ Irakasle gonbidatuaren saioa</b></p> <p>Peru Magdalena: kalanburra eta beste jolas batzuk.</p>

<b>1. SAIOA: KIRIKIÑO &amp; MARKOS GIMENO, HIZKERA JOKOAK</b>
<p>2023ko abenduan ehun urte beteko dira 1923an <i>Euzkadi</i> egunkariak euskarazko palindromo lehiaketa antolatu zuenetik, Bernardo Otxolua mundakarrak idatzi zituen gehienak, B. Egitiz izenordearekin: "Atso, nun otsa?" (Atso, nun hotsa?) "Orozkon enok zoro" (Orozkon ez nauk zoro) eta abar. Mende ia bete geroago, berebiziko berebiziko bestepalindromogile bat izango dugu: Markos Gimeno, ermuarra, bere buruaz beste egin zuena orain bost urte, 2018ko abenduan.</p>

Erreparasatu ditugu Markos Gimenoren palindromoak, eta analizatu dugu palindromoon esanahieza & esanahia.

Markosek hiru alorretan egin zuen lan handia:

-PALINDROMOA:

Markos Gimeno izan da euskarak izan duen palindromista handiena: “Esanik erruz egi bat eta bi gezurrekin ase”; “Autore erotua”; “Nik eta Bogartek ke trago batekin”; “Ze nekeza inori atea irekitzea eztikeria eta ironia zekenez”...

-HITZ ASMATUAK. Hitzokein lan egin zuen Markosek, hitzak zentzu ludikoan asmatzen. “Apologia: Apoei buruzko zientzia”; “Apokalipsi: Munduaren akabera, apoentzat”; “Apo (desarmatu): “Apoarmatua inoiz ez zanpatua” esaten dute apo batzuek”, apo desarmatuaren zanpatu patua berezkotzat onartuz.

-KALANBURRAK. Markosek, letrekin ez ezik, asko jokatu zuen ahozkotasanarekin eta homofonia joko asko egin zuen, batez ere euskara eta

**Ikasleei proposatu zaie hitz lokal ezezagunak aipateko...**

## 2. SAIOA::HIZKUNTZA ARAUA & SORMENA

Hitz asmaketa aztertu da batez ere. William Shakespearek edo Sabino Arana hartuz erreferentziatzen

William Shakespearek asmatutako hitzak:

***Critic, Gossip, Advertising, Accused, Dawn, Lower, Invulnerable, Generous, Unreal..***

Amaturiko izenak: **Jessica, Isca, Miranda, Rosaline, Olivia, Oliver, Celia**  
Konparazioa Sabino Aranak asmatutakoekin.

NORMA & SORMENA

Gramatika, fonologia, morfologia, sintaxia. Norma & Sistema erlazioan aztertu da Sormena: gatibu gaude norman, baina hiztun moduan, aska gaitzke. Norma estua da, hizkuntzaren sistema zabala, sistemak libertatea ematen dio hztunari...

Funtzio sortzailea edo funtzio poetikoa, **Eugen Coşeriu-ren definizioa oso interesgarria da: *poesia ez da hizkera arruntarekiko desbiazio bat. Normaetik urruntzea. NORMA HORI DA DESBIAZIO BAT.***

*Sormena, lengoaia naturalaren errekueratzea da.* Eznormatiboa, ezohikoa, hiztunaren libertatea da. Sistemaren errebindikazioa

ERREALITATEAREN BANAKETA

Lengoaia komuna da, dohainekoa. Baina, desiguala eta, boterearen edo jabetzaren ondorioa...

Euskal Herriaren izena aztetuko da, adibidez, euskaraz eta gaztelaniaz: Vasconia, Pais Vasco-navarro, Euskadi eta abar...

Johanes Urzidil-ek Karamablu deitu zuen. "Karamabluko Urrea": Karamabluko altxorra ez dago harpean, artxiboan, gramatikan.

Johanes Urzidilen beste hitz bat: hinternazionalismoa

Ferdinand de Saussure: erlazio sintagmatikoak eta paradigmaticoak hitz-sormenean.

Hitz maiteak eta hitz ez hain maiteak. Hitz arruntak eta hitz bitxiak

### 3. HITZ JOLASAK ETA ONDOEZAK

Hitzen, gure hizkuntzaren materia elemental horretaz kontzientzia hartzeko ariketa batzuk egin dira. Ikasle bakoitzak dituen

HITZIK GUSTUKOENAK konpartitu ditugu, hitz domestiko erdi galduak edo hitz ezagunak, hitz arraroak edo hitz oso normalak...

Gainera, HITZ DESAGERTUAK edo ja erabiltzen ez diren hitzei buruz jardun dugu. Noiz desagertu ziren, zelan...

Eta, alderantzizkoa, euskal lexikora oker sartu ziren HITZ MAMUAK ere aipatu ditugu. Analizatu ditugu bereziki 1596ko *Refranes y Sentencias* liburutik, itzulpen okerraren ondorioz, eta Manuel Larramendiren bidez, pasatu ziren hitzak. Hapax pila bat dago liburu horretan, oso posible da itzulpen oker hutsak izatea: oñon; azaga; zeia; zirola; bezuza... Liburu zahar horretako hitz eta esaerak erreparasatu ditugu.

### 4. IRAKASLE GONBIDATUAREN SAIOA

Peru Magdalenak kalanburra eta beste jolas batzuk esplikatu ditu modu praktikoan. Hizkera eta literatura zentzu ludiko batean erabiltzeko ariketa praktiko batzuk proposatu ditu.

### ONDORIOAK

Ba, horixe egin dugula uste dut. Helburua, uneoro erabiltzen ditugun hitzei buruz hausnartzea izan da, kontzientzia sortzaile batekin begiratzea hitzei. Ikasleen aportazioa ze interesgarria izan den ikusita, uste dut apur bat behintzat lortu dela.

Palindromoetara itzuli ondoren, Markosen kalanburrak aztertu ditugu: "Skizopoziks". Ludolexikografia, eta beste hizperimentuak.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

Eugenio Coseriu, *Lenguaje y discurso*, Eunsa, Pamplona, 2006..

Markos Gimeno, “131 AZA”, Autoedizioa, Ermua, 2014.

Markos Gimeno, “SkizopozikS”, Autoedizioa, Ermua, 2016.

Màrius Serra, *Verbalia, Península. Barcelona, 2000.*

Zerorajaso.com bloga. (Kolektiboa)

#hitzokei, Twiterren. (Markos Gimenorena)

DAP, “Markos Gimeno Vesga (1974-2018)”. (Dokumentala)